

BAZKIDE-TXARTELA ETA ANA

Eusko Ikaskuntzaren lehendakari berria den Ana Urkiza Ibai-barriagaren soslaiak hainbat alderdi aberats eta ubide zabal ditu literaturan, komunikazio korporatiboaren alorrean, eta lan munduko euskararen sustapenean



Begi urdin handi bi, galdekari, inguratzen zituen ilehori li-soak neskatzaren aurpegian, seguruenik. Aitari eskatu zion, Lehen Jaunartzeko opari modura, elkarte bateko bazkide izan nahi zuela. Gurasoek, egun berezi horretan, mutikoei Athletic edo Errealeko bazkide-txartelak oparitzen zizkieten modura, neskata hark ere bazkide-txartel bat izateko ilusia zeukan.

Ondarroan jaio zen Ana Urkiza Ibaibarriaga, 1969ko urtarri-lak 10 egun bete zituenean.

Literaturan ikasitako suspensea mantenduz kontatu zuen Ana Urkiza Ibaibarriagak istorio hori, Eusko Ikaskuntzako lehendakari hautatzeko ekitaldian. Ez zen anekdota bat, egiteko zeukan bizitzaren aurrean adierazpen esanguratsua baizik. Aitak galdegin zion ea zein elkarteko kide izan nahi zuen. Alabak, bere bederatzi urteko aulki txikira igota, ez zuen erantzuten jakin eta bazkide-txartelik gabe geratu zen.

Orain, berrogeita bi urte beranduago, Lehen Jaunartze garaian gura eban oparia lortu du, berezia, Eusko Ikaskuntzako lehendakari hautatua izatea. Gainera, datu historiko bat ere aipa daiteke izendapen honetan: 1918an sortutako euskal erakunde ospetsu eta errespetatu honetan lehen emakumezko lehendakari izatea.

Adituek diote gutxienez zortzi inteligentzia mota daudela (berba, logika, espazioa, musika, zinestetika, musika, natura, eta inter- eta intrapertsonala). Horien zeharrean, emozioen inteligentzia ere sartzen dute bederatzigarren modura.

Ana Urkiza Ibaibarriagaren kurrikuluma irakurri, hainbat iturri kontsultatu eta berehala konturatzen gara dohain handiak izan eta lan asko eta ongi egin duen pertsona baten aurrean gaudela. Lau edo bost inteligentzia mota oso berezko eta, itxura guttiz, oso garatuta dituela esan daiteke.

Berba-hizkuntz adimenari dagokionez, kazetaritza, literatura, itzulpengintza eta ahozkotasunean dohain nabarmenak izan eta kalitateko ekarpenak egin ditu. Kazetaritza lizentzia-





tura amaitu zuen 1994an UPV-EHUko fakultatean. Ikasle nabarmengarria izan zen. Borondatea eta fintasuna erakusten zuen. Ongi dakit, han nintzelako. Harrez geroztik, kazetaritzaren jardueran, *Deia* egunkarian eta *Karmel* aldizkarian artikulugile izan eta da luzaroan, beste hedabide batzuen artean.

Unibertsitateko garai hartan ez zuen soilik berbazko inteligentzia adierazi, baizik baita ekimenerako kuraia eta logikarako inteligentzia ere. Ikasketak egiten ari zela, estatu mailako *Komunikazioko EMedia* izeneko lehenbiziko junior enpresa sortu eta honen lehendakaria izan zen. Anak berak aitortzen duenez, esperientzia horri esker bere ibilbide profesionala komunikazio eta kudeaketa korporatibora zuzendu zuen eta, hobeiki prestatzeko, “*Communication d’Entreprise et Communi-*

tion Commercial” graduondokoa egin zuen Frantziako ESC Toulouse Business School-en.

Ondoren, 1996tik aurrera, makina-erramintaren sektorean komunikazio korporatibo eta komertzialaren arduraria izan zuen goi mailako euskal enpresa batzuetan. Milurteko berrian sarturik, “*Giza baliabideen kudeaketa eta zuzendaritza*” unibertsitate-graduondokoa egin zuen eta 2007an “Bankoa Crédit Agricole”-ko baliabideen zuzendaria izendatu zuten, langileek parte hartzeko estrategia garatu eta Jardunaren Ebaluaketarako Sistema berria ezartzeko. Gaur egun banketxeko Barne Komunikazio eta Prestakuntza zuzendaria da. Beraz, Ana Urkiza Ibaibarriagak inteligentzia logiko eta interpersonal dohatsuak erakutsi eta erakusten ditu profesionalki; eta inteligentzia mota horiek beharrezko gaitasunak dira, emoziorako sentiberatasunarekin hezetuta, lider edo buruzagi ona izateko.

Lan-esperientzia oparo hori unibertsitatera eramateko eskaria ere jaso zuen eta, honela, Deustuko Unibertsitateko Humanitateen fakultatean, komunikazio instituzionalaren gaia irakatsi zuen Komunikazio graduari. Donostiako campus horretan, *Komunikazio Ikasgela* ere sortu zuen, komunikazioko profesionalei zuzendua, hauen artean ezagutza eta praktika onak partekatzeko.

Euskaingintzaren aldeko jarduerari bere lanbide profesionalen bidez gauzatu du batez ere, enpresetan euskararen erabilera eta honen aldeko planak sustatzen. Horregatik eman zioten 2016an Elhuyar Saria.

Literaturaren alorrean hiru alderdi aipa daitezke: sorkuntza, kudeaketa eta sariak. Bigarrenean, Euskal Idazleen Elkarteko idazkari-kudeatzaile izendatu zuten 2000. urtean, elkartearen ekonomia eta plan estrategikoa landu eta hobetzeko. Jasotako sarien artean Agustin Zubikarai eta Tene Mujika daude, besteak beste.



Eusko Ikaskuntzako *lebendakari berria eta aurreko lebendakakia:*
Ana Urkiza eta Iñaki Dorronsoro

Baina literaturaren sorkuntzan islatzen da hobekien Ana Urkiza Ibaibarriagaren nortasunaren alderdi subjektiboa, kreatoria, artista. Hor agertzen da bere inteligentzia intrapertsonala eta emozionala. Hamasei literatur idazlan baino gehiago argitaratu ditu: ipuinak, poemak, entseia, narrazioa. Denak ezin direnez aipatu, horietako batzuen ubidean sartuko gara.

Desira izoztuak (Elkar, 2000) ipuin-bildumaren kontrazalean Ana Urkiza Ibaibarriagak idatzi zuen: “nahiak mugiarazten gaitu, zerbait lortzeko desirak (...) Eta hala ere, tentazio zitzuiguna erdietsitakoan, itzali egin ohi zaigu lehengo sentipen bizi hura”. Gogoeta berdintsua egin zuen Washington Irving (1783-1859) idazleak ere (“*Every desire bears its death in its very gratification*”; desio bakoitzak bere heriotza dakar bere gratifikazioare-

kin batera). Pentsamendu horretan oin hartu eta Anak liburuan “maitemina, ahaztura, patua, heriotza, sexua, bakardadea, mendeku-nahia... gure nahi eta ezin ezkutuenak” biluztu zituen.

Bazterreko ahotsa (Elkar, 2002) poesia liburuan, bere bizi-tzaren txoko sakonenetik hitz egin zuen: “gaur, emakume izanik esnatu naiz (...) gaur, emakume naizela konturatu naiz”.

Emakumetasun kontzientzia argi eta aldarrikagarri horretan koka daiteke bere saiakera liburua, *Zortzi unibertso, zortzi idazle* (Alberdania, 2008), non zortzi idazle emakume elkarrizketatu zituen. Kontrazalean irakur daitekeenez, bi helburu nagusirekin idatzi zuen: “egungo euskal literaturaren kanonean sartzekoak diren emakumezko idazleak badaudela jakitera ematea, eta euskal literaturaren kanonaren inguruan egonezina sorraraztea, ohikoak diren galderei ahotsa jarritz”.

Zortzi ipuin ere argitaratuta dauzka haur literaturaren alorrean. Horien izenburuekin soka-jokoa egingo bagenu, analisi heuristikoko modura, hurrengo nano-errelatoa idatz liteke beste askoren artean (kurtsibaz ipuinen izenburuetako hitzak):





Kontseiluko errektore-kideak: Gipuzkoatik: Xabier Alkorta eta Manu Olariaga. Arabatik: Angeles ztueta eta Asier Etxenike. Bizkaitik: Juan Luis Morages eta Zelai Nikolas. Nafarroatik: Mikel Aranburu eta Isabel Elizalde. Iparraldetik: Eguzki Urteaga.

“Ondarruako piratek betaurrekoak dituzte eta ostadarraren koloreak jarri dituzte herriko banderan, bidegorriko festa egiteko. Nik ere pirata izan nahi dut eta sekretu horren zaporea hain gozoa izanik, azazkalak jaten hasi naiz eta amak zaplaztakoa eman dit. Beti bezala, Tita tiritá etorri da salbatzera”.

Agian, haur ipuin hauen errezel finetan, lurrintsuetan, aurki dezakegu Ana Urkiza Ibaibarriagaren barne izaera, artista erroa, zuhurtziaren muina: hiru seme-alaben ama izatea.

Iñaki Zabaleta Urkiola